



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

VI. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2025eko maiatzaren 28, 29 eta 30a
Bilbo, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 4.0

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

**Adiskidetasuna
heterosexualitatearekiko
erresistentzia gisa: bollerren
sareetara lekualdatzea**

Nerea Goirizelaia Martín

157-164 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.vi.01.19>

ANTOLATZAILEA



BABESLEAK



LAGUNTZAILEAK



Adiskidetasuna heterosexualitatearekiko erresistentzia gisa: bollerren lagun-sareetara lekualdatzea

Nerea Goirizelaia Martín
EHU-UPV
nerea.goirizelaia@ehu.eus

Laburpena

Bollera subjektuarekin identifikatzen diren pertsonak harreman- eta bizi-ereduen inguruko proposamenak egiten ari dira gaur egun Euskal Herrian. Adiskidetasunak haien bizitzetan duen lekua aztertzen du artikulu honek, bere dimentsio politikoa azaleratuz eta eraldaketarako duen ahalmena ikusaraziz. Laguntasun-sareak kideen identitatearen eraikuntzarako zein bizi-antolaketarako zutabe garrantzitsu dira. Hori ulertzeko, etnografiaren bitartez ikertutako sareen eraketa eta dinamikei erreparatuko zaie, partaideen harreman-sare zabalean nola kokatzen diren eta zer garrantzi duten nabarmenduz.

Hitz gakoak: Adiskidetasuna, harreman-sareak, sexu-genero disidentziak, bollerak

Abstract

People who identify with the bollera (dyke) subject in the Basque Country are currently making proposals on relationship and life patterns. This article explores the place of friendship in their lives, revealing its political dimension and making visible its potential for transformation. Friendship networks are an important pillar both for the construction of the identity of the members and for their organization of life. In order to understand this, we will focus on the formation and dynamics of the networks studied through ethnography, highlighting how they are located in the extensive network of relationships of the participants and their importance.

Keywords: Friendship, relationship networks, sex-gender dissidence, dykes

1. Sarrera

Geure egungo gizarteko iruditerian familia nuklearra da nagusi, bai harremanen hierarkiari dagokionez eta baita elkarbizitza-moduaren aldetik ere. Nolanahi ere, Eustatek emandako datuen arabera, mende hasieratik hona, bakarrik bizi diren pertsona kopurua %7 inguru hazi da, eta seme-alabak dituzten bikoteen kasuan, %7ko jaitsiera ikus daiteke. Horregatik, sortzen eta areagotzen ari diren harreman-molde berriei erreparatzeko unea da.

Adiskidetasunari buruzko hainbat ikerketaren arteko bidean dago artikulu hau. Gradu Amaierako Lanean (Goirizelaia, 2021) emakume gazteen kuadrillean kide feministek zituzten bizipenak ikertu ondoren, Master Amaierako Lanean (Goirizelaia, 2023) bollerren lagun sareak aztertzeari ekin nion. Artikulu honek azken horren ondorioak eta doktore-tesiaren ibilbidearen hasiera islatzen ditu.

Lan honen ikerketa-objektua bollera gisa autoidentifikatzen diren pertsonen adiskidetasun-sareak dira. LGBTI esperientziez hitz egiten denean, maiz identitatean eta sexualitatean jarri ohi da fokua, adiskidetasun harremanak, kasu, alde batean utziz. Haatik, Ana Velascok (2022) dioenez, adiskidetasuna historikoki lotua dago LGBTI bizitzetara, heteroarautik ihes egiteko gunea baita (2022: 126). Hori dela eta, lan honen motibazioa gaur arte gaiak izan duen ikerketa urritasunetik abiatzen da. Beste alde batetik, LGBTI pertsonentzat lagun arteko harremanek duten garrantzia kontuan izanik, harreman horietako praktikek adiskidetasunaren, ahaidetasunaren, eta oro har, harremanen ulerkerak zabaltzeko eta eraldatzen dituztelako hipotesitik ere abiatzen da.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Esan bezala, bollera gisa autoidentifikatzen diren pertsonak dira ikerketaren erdigunea. Esanahi berri bat hartutako iraina da termino hau, subjektu politiko bihurtu dena; 90eko

hamarkadatik aurrera queer mugimendu eta teoriak identifikazio estrategikoetarako joera hartu zuten, irainei balio politiko berria emanez (Preciado, 2003: 3). Horren beste adibide batzuk dira, esaterako, ingeleseko *queer* eta *dyke* edota frantseseko *gouine* terminoak.

1980 eta 1990eko hamarkadetan Hego Euskal Herrian izandako lesbianen mugimenduak, mende berriarekin batera, pentsamendu queer eta transfeministaren eragina jaso zuen. Horrela, Medeak, MDMA eta 7menos20 bezalako taldeak sortu ziren, Euskal Herriko mugimendu transfeminista artikulatu eta indartu zutenak. Harrezkero, bollera subjektuak indarra hartu du Euskal Herriko testuinguruan, bereziki azken urteetan. Bollera terminoak, beraz, karga politiko handia du, lesbiana terminoak ez bezala, zeinak testuinguru batzuetan konnotazio politiko hori izan baitezake, edo ez.

Kategoria honi buruz idatzi dute Jokin Azpiazuk (2020), Maider Arregik (2022), Eva Perez-Ponsek (2023) eta Amaia Alvarez eta June Fernandezek (2023), besteak beste. Bollera gisa identifikatzen diren pertsonen hautu sexual eta politiko gisa ulertzen dute euren lesbianismoa, hots, heteroarauari kritika egin eta hartatik harremanen eta bizitzaren antolaketa eta planteamendu berriak (Perez-Pons, 2023) jartzen ari dira mahai gainean egun Euskal Herrian. Perez-Ponsek (ibidem) seinalatzen duen moduan, lesbiana politikoen eta bolleren arteko alde nabarmenetako bat emakume kategoriarekiko adskripzioa da. Hain zuzen ere, 2024ko apirilean antolatutako Euskal Herriko Bollotopaketetan kategoria honek generoa eta bitartasuna ere auzitan jartzen dituela agerian geratu zen. Horregatik, adiskidetasunaren inguruko ikerketa egiteko subjektu bereziki interesgarria dira, baita LGBTI kolektiboen baitan duten politizazio-maila altuagatik ere.

Antropologiaren alorrean adiskidetasunari buruz egindako ikerketak beste harreman batzuei buruz egindakoak baino urriagoak dira, bikote harremanekin edo ahaidetasunezko harremanekin konparatuta, esaterako. Adiskidetasunaz aritzean, Josepa Cucóren (1995) eta Sandra Bell eta Simon Colemanen (1999) lanak oinarritzekoak dira; azken horretan, etnografiaren garrantzia defendatzen dute egileek; izan ere, adiskidetasuna testuinguru sozial eta historikoaren arabera aldatu egiten dela (Díez, 2016: 159) gogoan izan behar da hari buruz ikertzean. Horren ondorioz, askotariko definizioak sor daitezke eta etnografiak ikuspegi etnozentrikoak ekidin ditzake, baita teoria zabaldu eta konplexuago bihurtzen lagundu ere.

Euskal Herriko testuingurura etorruta, zenbait lanek adiskidetasun-harremanak genero begiradatik aztertu dituzte (Medrano, 2009; Estévez, 2015; Díez, 2016). Bestalde, tokiko adiskidetasun-moldeei begira, kuadrillei buruzko lanak (Ramírez-Goicoechea, 1984; Homobono, 1994; Cucó, 1995) azpimarratzekoak dira, esfera sozialean duten garrantzia kontuan hartuta.

Adiskidetasuna ahaidetasunetik banatuta egon izan da ikerketan, baina bi horien arteko mugak ez dira beti argiak, Amit Desai eta Evan Killickek (2010) azaltzen duten moduan. Haien ildotik, badira ahaidetasunaren kontzepzioa zabaltzeko ahaleginak egin dituzten autoreak ere (Sahlins, 2010), ahaidetasun-harremanak odolezko eta filiaziozko harremanez gain beste askotariko elementuen bidez bitartez sor daitezkeela azpimarratuz (Bestard, 2009). *Sororitate* edo *ahizpatasun* terminoek (Lagarde, 2009; Liendo, 2022), gaur egun feminismoarekin lotutako esparruetan erabilia direnak, ongi erakusten digute ahaidetasunaren ulerkeraren zabalpen hau.

Adiskidetasunaren ikerketatik ere hainbat ahalegin egin dira ahaidetasunarekiko mugak lausotzeko (Dañobeitia, 2019; Velasco, 2022). Horrez gain, esanguratsua da Mari Luz Estebanek (2016) proposatutako *elkar babeserako sareen* kontzeptua. Izan ere, alderdi afektiboaz gain, beste faktore asko azpimarratzen ditu egileak harreman hauen oinarri gisa.

Ahaidetasunaren adiera zabalago horiei jarraiki, Kath Westonek (2003) hautatutako familiei buruz dihardu; LGBTI pertsonen ahaidetasun-praktikak aztertu ditu, eta azaltzen du ahaidetasun-kategoria tradizionalak zalantzan jartzen dituztela, adiera zabalduz eta lagun arteko harremanak ere barne hartzeko aukera irekiz.

LGBTI pertsonen inguruan aritzean sexualitatea eta harreman afektibo-sexualak gai nagusiak izan ohi dira, eta adiskidetasun sareak ez dira hain aztertuak izan. Hala eta guztiz ere,

adiskidetasun-harremanak oinarritzekoak eta garrantzi berezikoak dira LGBTI pertsonen bizitzetan (Velasco, 2022), eta gaia aztertu duten hainbat egile bat datoz esatean laguntasun-harreman disidenteek adiskidetasunaren kontzeptzio hegemonikoa zalantzan jartzen dutela (Viñuales, 1999). Michel Foucaulten (2015) aburuz, adiskidetasuna, garrantzitsua ez ezik, homosexualitatearen funtsa da, eta bizi-eredua erabat markatzen du. Harreman hauek dimentsio politiko indartsua dute, Peter Nardik seinalatzen duenez, estatus ez-normatibo baten bueltan antolatuak baitira (1992: 115). Komunitate horiek alternatiba eskaintzen dute, hain zuzen, pertsona hauek beren jatorrizko komunitateetako kide izaten jarraitzen dutelako, sozializazio-esparru berrietara hurbildu arren (Friedman, 1996). Horregatik, harreman horiek harremanen hierarkia hegemonikoarekin apurtzeko potentziala dute, familia nuklear heterosexualetik harago aukerak irekiz. Aipatzekoa da adiskidetasunak mugimendu LGBTI eta feministetan duen garrantzia, balioak partekatu eta praktika politikoak bultzatzeko bide ematen baitu.

Azken urteetan adiskidetasunaren teoria ikasketa LGBTI eta feministetatik aberastu da (Velasco, 2022; egile ugari, 2024). Gizarte-mailan, Euskal Herriko bollerak beren komunitate eta sareei buruzko hausnarketak egiten ari dira; horren adibide dira aipatutako BolloTopaketetan (Leitza, 2024) etxebizitza, elkarbizitza edo zahartzaroari buruz izandako eztabaidaguneak.

Jarraian azalduko den ikerketaren helburu nagusia, beraz, bolleraren adiskidetasun sareak aztertzea da, Hego Euskal Herriko testuinguruan; zehazki, sare horiek kideen bizitzetan duten garrantzia eta eragina aztertuko da, zer-nolako espazio, denbora eta praktiken bitartez garatzen diren behatuz, eta kideek sarearekiko eta adiskidetasunarekiko dituzten kontraesan, gatazka eta aldaketa nahiei erreparatuz.

3. Ikerketaren muina: sareetan barna

Honako ikerketa etnografian oinarritu da, eta beraz, metodologia kualitatiboa baliatu du. Sareen azterketarako, banakako zein taldeko elkarrizketak egin dira, eta ikerketaren zutabe metodologiko nagusia adiskide-talde baten azterketa izan da; horretarako, behaketa parte-hartzaileen bitartez, eta sare bateko pertsona bat erreferentzia gisa hartuz, kideen egunerokotasuneko praktikak behatu ahal izan dira hiru hilabetetan zehar (2023ko udaberrian) euren jardueretan parte hartuz. Sare horretako erreferentziazko pertsonarekin (Norarekin) zenbait hizketaldi partekatu dira behaketez gain, eta saretik kanpo banakako elkarrizketa bat (Suarekin) eta talde-solasaldi bat (Ekhiñe, Hodei, Malen eta Maiterekin) egin dira.

Parte-hartzaileak gazteak dira, 20 eta 35 urteen bitartekoak. Denak dira gipuzkoarrak eta herriak dira guztien jaioterri, nahiz eta denak bizi izan diren inoiz hiriren batean. Guztiek dituzte unibertsitate-ikasketak eta batzuek ikasten jarraitzen dute. Lan-egoera askotarikoak dituzte lan mota eta egonkortasunaren aldetik. Ikertzailearen inguruko pertsonak dira parte-hartzaileak; geure artean lagun, etxekide(-ohi), ezagun eta maitale(-ohi) harremanak daude nahasita, eta, horregatik, ikerketaren zeharkako dimentsio autoetnografikoa ere aipatzekoa da; testuan bertan oso nabarmena ez bada ere, nire bizipen eta esperientziez josita daude lerroarteak. Horrek anonimotasunaren eta informazioaren kudeaketaren inguruan hausnartzera eta askotariko estrategiak garatzera eramán nau; izan ere, Euskal Herriko bolleraren komunitatearen tamaina dela eta, parte-hartzaileen jaioterria, adina eta lanbidea bezalako datuak izanda ez da zaila nor diren jakitea. Horregatik, oso garrantzitsua izan da ikerketa-prozesu osoan zehar ikertzaile paperaren gaineko jarrera erreflexiboa izatea eta landa-lanean jasotako informazioa tentuz tratatzea. Ikerketaren muina aurkeztuko da jarraian, tarteka parte-hartzaileen ahotsak ere orriotara ekarriz.

3.1. Harreman-mapak eta jatorrizko komunitateak

Nire harreman heteroak emanak etorri zaizkidanak dira: familia, txikitako kuadrilla eta lankideak
(Ekhiñe)

Parte-hartzaileek beste bollera eta sexu-genero disidente batzuekin osatzen dituzten sareek beren bizitzetan hartzen duten lekua behatzeko, marko zabalago batetik begiratu behar zaie. Horretarako, harreman-mapak irudika daitezke eta partaideek dituzten bestelako sareei ere erreparatu. Mapa

hauetan, lehenik eta behin, kideen jatorrizko komunitateekin egiten dugu topo: herria, familia eta kuadrilla; horiei helduko diegu atal honetan.

Jatorrizko harreman horiek gako ugari eskaintzen dizkigute adiskidetasun-sare hautatuak kideen bizitzetan kokatu eta ulertzeko. Izan ere, bollera identitatea eta sareak sortzeko garaian, sozializazio-esparrua erabakigarria da, eta harreman-sare zabalean aurki daitezkeen babes eta oztopoek garrantzi handia izan dezakete gerora eraikiko diren harremanetan. Herria, oro har, gizarte-arauak islatzen diren eremu gisa bizi dute parte-hartzaileek, eta deseroso, lekuz kanpo edota ez ulertuak sentitzen direla adierazten dute. Esan beharra dago, hala ere, hori nola edo hala konpentsa ditzakeela tokiko mugimendu feminista edota transmaribibolloek egindako lanak. Parte hartzaileen arabera, herri batetik bestera errealtatea asko alda daiteke talde horien existentzia edo indarraren arabera.

Kide guztiek kokatzen dute euren burua, korporalki eta identitate eta bizimoduari dagokionez, normatik kanpo edo periferian, eta hori, herrian ez ezik, familiarekiko harremanetan ere nabari da. Kide guztiek agertzen dute familiarekiko distantzia, kasu askotan, euren bollera identitatea gatazka garbia baita testuinguru horretan. Kokapen politiko eta diskurtsoari begira bakarrik ez, korporalki ere mugak nabari dituzte zenbait kidek, eta itxura moldatu egiten dutela adierazten dute batzuek. Familiaren egitura oso normatiboa bada ere, harremanak, aldiz, konplexuagoak dira; geure gizartean familia banakoen babes-iturri handia da (horren atzean ezkuta daitezkeen indarkeria ahaztu gabe), eta neurri handi edo txikiagoan, kide hauek ere jasotzen dute. Babes materiala izan landa-lanean nabarmenena, baina babes emozionala eta afektiboa ere agerikoak dira. Kritika eta distantzia horiez gain, parte-hartzaileek zirrikitu batzuk topatzen dituzte, modu batean edo bestean espazio erosoago bilakatzen dituztenak familia barneko harreman batzuk.

Azkenik, kuadrilla ere jatorrizko komunitatetzat hartzen dut; bi eremuren artean dantzan dabilen taldea da kuadrilla: alde batetik, lagunarteko saretzat jo daiteke, baina bestetik, jatorrizko harremana ere bada, kasu gehientsuenetan aukeratzen ez den heinean. Izan ere, kuadrillak hartzaroan edo nerabezaroan adin bertsuko pertsonen artean sortzen diren pertsona-taldeak dira, eta herri berekoak, eskola berekoak, auzo berekoak... izateagatik sor daitezke (Homobono, 1994:240; Díez, 2016: 164). Talde horren barruan lagun-harremanak egon daitezkeen arren, kuadrilla ez da lagun-talde soil bat eta kide guztiak ez dira elkarren lagun, edo ez dute zertan izan. Adiskidetasun-molde hau normatiboa da bi arrazoigatik: alde batetik, Euskal Herriko testuinguruan lagunak izateko modu ohikoenetako bat delako, eta, bestetik, gizarte-arauak taldean islatu eta indartu (Díez, 2016) ohi direlako.

Kuadrillarekiko esperientzia desberdinak ageri dira parte-hartzaileen hitzetan, baina guztiak dira edo izan dira kuadrilla baten parte, eta neurri batekoa edo bestekoa izan, denek adierazten dute taldearekiko distantzia. Distantzia hori kuadrillarekiko kritika baten ondorio da, zeinak lotura daukan gizarte-arauen kritikarekin. Izan ere, Díezek dioen moduan, kuadrillak ezartzen dituen arauak okerrago bizi ditu gehiengoarekiko desberdina den kideak (2016: 170).

3.2. Sareak desegin eta egin: lekualdatzeak

Bollera edo “x” izatea ez da zuk barruan daukazun zeozer bakarrik, zure inguruak ahalbidetzen dizu.

(Hodei)

Nik hemendik alde egin nuenean bakardade batetik ihes egin nuen. Ez nuen ezagutzen nire sentsibilitateko pertsonarik, eta hartzen ari nintzen joera eta bizi eredu indartzeko ispilu moduko bat behar nuen, eta horren bila joan nintzen.

(Sua)

Jatorrizko komunitateen eta hautatuen arteko harreman eta joan-etorriak ulertzeko, Sara Ahmedek desplazamenduaz (2018) esaten duena baliatuko dut. Esan bezala, partaideek jatorrizko komunitateekiko distantzia agertzen dute, eta horietatik lekualdatu edo desplazatzeko nahia dute, harremanetarako eta bizitzeko eredu alternatiboen bila. Desplazamendu baten beharra sumatu dugu, jatorrizko komunitateei dagokiena. Lekualdaketa hori hainbat modutan gerta daiteke: espazialki edo fisikoki, sozialki, eta, beharbada, baita linguistikoki ere.

Etnografia honetan, gizarte-desplazamendua funtsezko gertaera da parte-hartzaileek gizarte-bizitza beren bizi-beharren eta ideia politikoen arabera garatu ahal izan dezaten. Kideek espazio horietan lekurik ez izateko sententzia azaltzen dute, eurentzat espazio gero eta txikiagoa sentitzen dutela diote; kuadrillaren edo herriko testuinguruak bizigarriak ez izateko sententzia nabaria da, eta beste leku batzuetara desplazatzeko beharra agertzen dute parte-hartzaileek. Hala ere, garbi ikusten dute ez dela euren “arazo” bat.

Ihesaz ari zaigu Maria Livia Alga (2018), Gilles Deleuzeren hitzak oinarri hartuta. Ihes egitea, bere esanetan, ez da ekintza koldarra, aktiboa baizik (Deleuze eta Parnet, 1996; in Alga, 2018: 45-6); ihes egitea errealitatea produzitzea da, beste bat bilakatzea (ibidem), lurralde normatibotik at. Halaxe suma dezakegu Suaren hitzetan, behar zuen horren bila alde egin zuela kontatzen digunean.

Hain zuzen ere, ihes horri lotuta, Ahmedek armairutik ateratzeko prozesuak *norabaiterantz* ateratzeko istorioak direla dio (*historias de “salir hacia”*); munduari begiratzeko eta haren aurrean kokatzeko modu berriak sortzen ditu, gorputzen arteko kontaktu berriak eginez (2018: 150). Espazio berri baten irekiera gisa deskribatzen du hori Preciadok (2005), eta horixe bera adierazten du kide batek “bollo-mundua ireki” zaiola dioenean.

Norbere orientazioa heterosexualetik bollerora lekualdatzeak gorputza beste modu batean habitatzea dakar (Ahmed, 2018: 98), eta hala bizi dute ikerketako kideek ere. Esaterako, Norak honakoa esaten digu: “ni banaiz bollera, baina ari naiz bollerizatzen, aldaketa horiek bizitzen gorputzean”. Izan ere, B.A.L.A. kolektiboko kideek zioten bezala, “bollera gorputzea (...) gure haragia berraurkitu eta begirada heterosexualetik askatzea da” (2019: 5).

Bollera gorputz batek jada ez du berdin habitatzen espazio heterosexuala, ez da harengana berdin zuzentzen (Ahmed, 2018: 98); nora eta nola joan daitekeen eta besteek nola hautematen duten erabat aldatzen da. Eta horrek eragin zuzena du beste pertsonetara harremanetan. Esaterako, laguntasuna eta maitaleekin duen harremanaren arteko mugak ez ditu oso modu zehatzean bizi Norak orain; gainerako partaideek ere ez dute banaketa zurrunik egiten bien artean eta denak sarearen barruan kokatu dituzte. Horrek harreman-modu berriak esploratzeko bide ematen du, harreman-eredu heterosexualek ahalbidetzen ez dituztenak. Eredu normatibo horietan posible ez diren aukerak irekitzen ditu ber-orientazioak (ibidem: 145).

Desplazamenduak desorientazioa eta ber-orientazioa eragiten ditu, eta gorputzak nonbaitetik joatea dakar, baina baita norabait iristea ere (Ahmed, 2018: 23). Hain zuzen ere, jatorrizko komunitateetatik aldentzen dira pertsona horiek komunitate hautatu berrien bila, eta une horretan sortzen dira ikergai ditugun sareak. Horiek gorputz bolleroen bigarren azalera bat izan daitezke (ibidem), eta ber-orientazioa eta desplazamendua ahalbidetzen duten kolektibo gisa jokatzeko dute. Sare horien eraketaren arrazoia ez da logika heterosexualetatik babesteko espazio seguru bat izateko desira soilak; aitzitik, bestelako harreman-moduak eta orientatzeko eta mugitzeko aukera berriak sortzeko aukera ere ematen du. Aztertutako sare hauek guztiek bi alderdi garrantzitsu partekatzen dituzte: alde batetik, partaideen bizitzen sostengurako funtsezkoak dira; eta, bestetik, sostengu hori feminismo, transfeminismo eta bollerismoaren ideietan oinarritzen da, esparru horietan sareko kideen parte-hartze politikoa nabarmena delarik.

3.3. Espazioak, elkarguneak, festak

Nire herrian ez dago ligatzeko kontesturik, ni por gorda ni por bollera, eta igual zuekin eta beste sareetan dauzkadan kontestuetan ere, hori favorableagoa da, eta ni ere ni-ago naiz, lasaiago nago.

(Malen)

Espazioa, oro har, heterosexuala da; heterosexuala da espazioan ikusgarria dena, eta heterosexualek dira hartan hedatzen diren gorputzak (Browne, 2007; Ahmed, 2018). Horren aurrean espazio bizigarriak aurkitzeko bidean, parte-hartzaileen kontaktetan elkarguneen bilaketa eta beharrak zentraltasun handia du. Geure kideek espazio fisikoak izateko beharra azaldu dute, erreferentziazko tabernak esaterako, baina, eskuarki, sozializaziorako berezko espazioak iragankorrak izan ohi dira, eta eratzen dituzten pertsonen joan-etorriarekin sortzen eta desegiten dira (Ahmed, 2018: 151).

Badago, ordea, iraunkorra izan daitekeen espazio bat, landa-lanean zehar presentzia handia izan duena: etxebizitza eta bizikidetzaproiektuak. Etxea aurkitu nahi den leku eta babesgune gisa sumatzen da partaideen bizipenetan. Izan ere, aurreko atalean aipatutako desplazamenduak toki seguru bat uztea dakar, etxea (izan) dena zentzu askotan: sozio-geografikoan, afektiboan, linguistikoan, epistemologikoan (De Lauretis, 1999:47-48; in Alga, 2018: 48). Horren ondorioz, leku, etxe eta espazio berriak ezagun bihurtu eta babesgune bilakatzeko beharra dute kideek.

Bestelako elkarguneetara itzulita, azpimarratzekoa da gune horiek izaera politiko indartsua dutela, baita jaiek ere, gerora sare bat osatu dezaketen pertsonekin harremanak egiteko unean garrantzi berezia dutenak. Halakoak sortzeko toki afin edo probableagoak badaude ere (taberna zehatz batzuk, gaztetxeak, gune autogestionatuak, etab.), pertsonen joan-etorriarekin batera doaz sortutako espazioak; espazio-denbora zehatzak dira, espontaneoak izan daitezkeenak, edo aurrez antolatutakoak. Ahmedek azaltzen duenez, mundu heterosexuala jada finkatuta dago, eta haren arauetatik ateratzen den oro aldi baterakoa izango da soilik (Ahmed, 2018: 151).

Ikerketako kideek parte hartzen duten elkargune iragankorrez ari naizenean, ez naiz ari kontsumora bideratutako jaialdiez. Aitzitik, mugimendu feminista zein transmaribibolotik jaiotako ekimenak izan ohi dira, maiz gune autogestionatuetan egiten direnak. Perez-Ponsek aisialdia agenda politikoan sartzearen garrantziaz dihardu (2023: 41), sexu- genero disidenteentzako elkarguneak sortzeak kontzientzia kolektiboa lantzeko aukera baitakar (ibidem). Hain zuzen ere, saretzea ahalbidetzen duten elementu oso garrantzitsuak dira elkargune hauek. Lagun sarea, bizilekuan ez ezik, beste herri eta hiri batzuetan ere barreiatuta daukate parte-hartzaileek, eta harekin elkartzeko lekualdatze tenporal zein iraunkorrak egiten dituzte, dela ekimen, festa, etab. zehatzetara joateko, dela etxetik aldatuz. Hel diezaiegun, orain, festei.

Hainbat arrazoi daude sexu-genero disidenteentzat festak duen garrantzia azaltzen dutenak, baina garrantzitsuenetako bat hark identitateen eraikuntza eta saretzearekin duen lotura estua da, elkarguneekin oro har, gertatzen den bezala. Inguru normatiboetako festetan heterosexualitatea erreproduzitzen den era berean, bollerek parte-hartzen duten festetan (direla transfeministak, transmaribibolloak, bolleroak, etab.) euren identitatea ospatu (Guilló, 2016: 11) egiten dute, eta talde-identitatearen adierazpen-eremu bilakatzen da (ibidem). Esan daiteke, beraz, bolleren identitate kolektiboa sendotu egiten dela festetan. Saretzeko tresna indartsua da festa, bertan elkar ezagutu eta harremanak sortzen baititugu.

Gainera, Malenen hitzak berreskuratuz, ikus dezakegu desirak eta sexualitateak presentzia berezia dutela festa hauetan. Izan ere, festa normatiboetan hain presente dauden erasoen erasotik, eta oro har, begirada heterosexualetik urrunduz, harremanak modu askeagoan garatu daitezkeen espazioak sortzen dira eta normatibotasunetik kanpo dauden gorputzei desiragarritasuna berreskuratzeko aukera irekitzen zaie (Miner eta Txurruka, 2016: 269). Dena den, horri garrantzia eman nahian, gehiegizko zentraltasuna hartzeko arriskua dago, beste egoteko modu batzuk lekuri gabe utziz. Honen inguruan eta ikerketaren beste ondorio batzuetan sakonduko dugu jarraian.

4. Ondorioak

Azkenaldian hasi gara hitz egiten gure espazioetan sortzen diren biolentzien edo deserosotasunen inguruan... Askotan parrandetan ligatzeak eta alkoholak ze zentralitate daukaten... deserosotasun asko sortzen ditu, eta uste dut hasi garela horri buelta batzuk ematen, ari garela hori auzitan jartzen. Nire ustez oso garrantzitsua da hori.

(Maite)

Nik uste dut [festa] dela baliabide bat, eta politizatu behar dugu, daukan garrantzia aitortu. Aldi berean gure artean norma bezala da parranda gustatu behar izatea. Eta uste dut farrak asko lotzen duela, baino ematen du ematen duenerako. Nik, pertsonalki, faltan botatzen ditut farratik kanpoko ekintza bolleroak.

(Hodei)

Sare hauek, beraz, identitate indibidual zein kolektiboen eraikuntzarako oinarritzakoak direla ikusi ahal izan dugu orriotan, eta, horretarako, desplazamenduak eta ber-orientazioak duten garrantzia ere agerian geratu da. Adiskidetasun-harreman hauek kideek euren bizitza beren ideia, behar eta nahien arabera antolatzeak aukera ematen dute, jatorrizko komunitateen parte izanik soilik lortuko ez luketena.

Preciadok proposatzen du, ikergai ditugun espazio eta sareak beharrean, ez ote den heterosexualitatea bera espazio itxia, gehiengo hartzen duen ghettoa (2005: 116). Liberazio sexuala aldarrikatu baino, “ghetto hetero”-tik ateratzeko ihespuntuak bilatzeko proposamena botatzen du autoreak, gorago aipatutako Algak (2018) eta Ahmedek (2018) ere iradoki bezala. Hala ere, kontuz ibili beharra dago, ezin baitugu ulertu kanpoalde bat sortzen denik. Preciadok dioen moduan, ezin dugu esan queer kulturak heterosexualitatearen baitan edo hartatik kanpo dauden, heterosexualitatearekiko erresistentzia-kultura gisa ulertu behar ditugu (2005: 117).

Horrela, kanpoaldean ez daudenez eta erresistentzia diren arren, arau heterosexualaren, eta, oro har, gizarte arauen eragina dute aztergai ditugun sare eta espazio hauek. Etnografiako parte hartzaileek ondo azaltzen duten moduan, sare eta espazio hauek ez dira idealak, normatibotasunetik eratorritako zenbait ezaugarri eta dinamika baitituzte; zenbait partaidek, esaterako, festetan *ligoteoak* daukan gehiegizko zentraltasunarekiko kezka agertzen dute, gorago ere aipatu bezala. Hodeik, esaterako, bestelako elkargune batzuen beharra adierazten du, eta Maitek deserosotasun horien inguruan kolektiboki hausnartu eta eztabaidatzearen garrantzia azpimarratzen du. Zentzu horretan, jada aipatutako Bollo topaketetan egindako zenbait tailer aipatzekoak dira, bolleraren arteko indarkeria eta desira landu zituztenak, esaterako.

Norabaiterantz egindako desplazamendua, hortaz, etengabekoa da, helmuga baino, norabidea baita, eta partaideek argi azaltzen dute bidean sortzen diren eztabaida eta deserosotasunei era kolektiboan heltzea funtsezkoa dela.

5. Etorkizunera begira

Hasieran esan bezala, Master Amaierako Lanaren ondoren eta doktore-tesiaren hasieran dago artikulua hau. Hortaz, kontuan izanik etorkizuneko ikerketa jada eginga dudana baino zabalagoa izango dela, norabide eta helburuek ere eremu zabal eta sakonagoa hartuko dute. Aldagai gehiago barne hartzeko beharra agerikoa da, MALaren dimentsioa dela eta eremu oso zehatz bati soilik behatu izanak adinaren, lurraldetasunaren eta bestelako aldagaiak mugatu baititu.

Sexu-genero disidenteen adiskidetasun sareen azterketak zentrala izaten jarraituko du, eta horiek dituzten askotariko dimentsioak azaleratzeko asmoa du ikerketak, bereziki dimentsio politikoari erreparatuta. Horrekin lotuta, Euskal Herriko testuinguruan bollerak eta sexu-genero disidenteak adiskidetasunaren bitartez harreman-ereduen esparruan egiten ari diren eraldaketa eta proposamenak ere aztertuko ditu, horiek bizi-ereduan nola islatzen diren ikusiz.

Zaintza-sistema birpentsatzen ari garen honetan, zaintza-eredu berrien beharra agerikoa da bai esparru akademikoari eta baita aldarrikapen feministei begiratzen badiegu ere; horretarako, genero-arauen eta familiako harremanen birformulazioa ezinbestekoa da, eta ikerketa honen moduko proposamenak helduleku izan daitezke gai honi irtenbidea bilatzeko, harreman-eredu berriak eta berdinzaleagoak ikusarazten baitituzte.

6. Erreferentziak

- Ahmed, S. (2018): *Fenomenología queer: Orientaciones, objetos, otros*, Bellaterra, Bartzelona.
- Alga, M. L. (2018). *Etnografía terrona de sujetos excéntricos*, Bellaterra, Bartzelona.
- Alvarez, A. eta Fernandez, J. (2023). *Mariokerrak: Nola esan/izan bollera euskaraz*, Txalaparta, Tafalla.
- Arregi, M. (2022). *Bollera bertsolarien bizipenak. Konplexutasunez beteriko oholtzaratzeak* [MAL]. UPV-EHU.
- Azpiaz Carballo, J. (2020). *Ur nahasiaren erraiak. LGTB* esperientzia eta politizazioak Hego Euskal Herriko mugimenduetan*. UPV-EHU.
- B.A.L.A. (2019). Bollera subjektua. Erronkak, aliantzak eta estrategiak, *Euskal Herriko V. jardunaldi feministak*, Durango, azaroak 1-3, eskuragarri hemen: <https://www.emakumeenmundumartxa.eus/wp-content/uploads/2020/04/V.Jardunaldi-Feministak-B.A.L.A.pdf> [Kontsulta eguna: 2025/02/17].
- Bell, S. eta Coleman, S. (1999). *The Anthropology of Friendship*, Berg, Oxford.

- Bestard, J. (2009). Los hechos de la reproducción asistida: entre el esencialismo biológico y el constructivismo social. *Revista de antropología social*, 18, 83-95.
- Browne, K. (2007). (Re)making the other, heterosexualising everyday space, *Environment and Planning*, 39, 996-1014.
- Cucó Giner, J. (1995). *La amistad, perspectiva antropológica*, Icaria, Barcelona.
- Dañoibeitia Ceballos, O. (2019). Resisters: Euskal emakume preso politikoen arteko ahaidetasuna, in M. Ruiz Torrado, O. Etxebarrieta Legrand, L. Vara Jimenez (koord.), *Argi-izpiak txarrantxen artean. 14 begirada kartzela feminismotik birpentsatzeko*, UEU, Bilbo, 147-165.
- Desai, A. eta Killick, E. (2010). *The Ways of Friendship: Anthropological Perspectives*. Berghahn Books.
- Díez Mintegui, C. (2016). La construcción de la amistad: Procesos, rupturas y consolidaciones, in M.L. Esteban, M. Bullen, C. Díez, J.M. Hernández, E. Imaz, *Continuidades, conflictos y rupturas frente a la desigualdad: Jóvenes y relaciones de género en el País Vasco*, Emakunde, Vitoria-Gasteiz, 157-181.
- Egile ugari. (2024). *(h)amor⁹ amigas*. Continta Me Tienes, Madrid.
- Esteban, M. L. (2016). Maitasun harremanak eta elkar babesteko sareak edo komunitateak: Emakume feministen esperientziak, in M.L. Esteban eta J.M. Hernández (koord.), *Etnografía feminista Euskal Herrian, XXI. mendera begira dagoen antropologia*, or. 261–275). UEU eta EHU, 261-275.
- Estévez Del Palacio, L. (2015). *Emakume gazteak, feminismoa eta adiskidetasuna. Kontraesanetatik harreman eraldatzaileetara* [Master Amaierako Lana]. UPV-EHU.
- Foucault, M. (2015). De la amistad como forma de vida, in *¿Qué hacen los hombres juntos?*, Ediciones Cinca, Madrid, 9-17.
- Friedman, M. (1996). El feminismo y la concepción moderna de la amistad: Dislocando la comunidad, in C. Castells (koord.), *Perspectivas feministas en teoría política*, Paidós, Barcelona, 149-166.
- Goirizelaia Martín, N. (2021). *Begirada feminista bat adiskidetasunari: Emakume gazteen kuadrillak aztergai* [Gradu Amaierako Lana]. UPV-EHU.
- Goirizelaia Martín, N. (2023). *Sareez eta (nora)bideez. Bollerren adiskidetasunari buruzko etnografía bat* [Master Amaierako Lana]. UPV-EHU.
- Guilló Arakistain, M. (koord.) (2016). *Festak, genero-harremanak eta feminismoa*, UEU, Bilbo.
- Homobono, J.I. 1994. “Grupos y asociaciones amicales. La sociabilidad en Euskal Herria”. *Inguruak*, 8, 231-253.
- Lagarde, M. (2009). La política feminista de la sororidad, *Mujeres en Red, el periódico feminista*, 11, 1-5.
- Liendo, B. (2022). Juntas y revueltas: la sororidad en el feminismo contemporáneo, *Recerca*, 27(2), 1-22.
- Medrano Asenjo, B. (2009). *Nesken arteko adiskidetasuna, sartzeko-baztertzeko prozesuak, boterea eta genero agindua* [Master Amaierako Lana]. UPV-EHU.
- Miner, K. eta Txurruka, A. (2016). Jaigunak espazio politiko feminista bezala irudikatzen, in M. Guilló Arakistain (koord.), *Festak, genero harremanak eta feminismoa*, UEU, Bilbo, 263-275.
- Nardi, P. M. (1992). That’s what friends are for: Friends as family in the gay and lesbian community, in K. Plummer (ed.), *Modern Homosexualities: Fragments of Lesbian and Gay Experience*, Routledge, Londres, 108-120.
- Perez-Pons Andrade, E. (2023). *Erresistentziarako gorputzak: Bollerak*. Susa, Zarautz.
- Preciado, P.B. (2003). Multitudes queer. Notas para una política de los “anormales”, *Multitudes*, 12, 157–166.
- Preciado, P.B. (2005). Devenir bollo-lobo o cómo hacerse un cuerpo queer a partir de El pensamiento heterosexual, in D. Córdoba, J. Sáez, P. Vidarte (ed.), *Teoría queer. Políticas Bollerak, Maricas, Trans, Mestizas*, Egales, Barcelona, 111–132.
- Ramírez-Goicoechea, E. (1984). Cuadrillas en el País Vasco: Identidad local y revitalización étnica, *REIS: Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 25, 213–222.
- Sahlins, M. (2010). What Kinship is (part one), *Journal of the Royal Anthropological Institute*, 17, 2-19.
- Velasco Lázaro, A. I. (2022). *La amistad como forma de vida: Género, sexualidad, diversidad relacional y el problema del parentesco*. Universidad Complutense de Madrid.
- Viñuales, O. (1999). *Identidades lésbicas*. Bellaterra, Barcelona.
- Weston, K. (2003 [1997]). *Las familias que elegimos. Lesbianas, gays y parentesco*. Bellaterra, Barcelona.

7. Eskerrak eta oharrak

Artikulu hau Gizarte Antropologiako Masterrean egindako Master Amaierako Lanaren ondorio eta Eusko Jaurlaritzaren doktoratu aurreko programaren laguntzaz egiten ari naizen doktore tesiaren hasierako ikerketa-proiektuaren parte da. Nire esker ona gradutik zuzendari dudari Mari Luz Estebani eta etapa berri honetara batu den Marta Luxani, laguntza eta orientazioagatik.

Eskerrik asko ikerketako parte-hartzaile-lagunei ere, ni bezain aditu zarete honetan.